

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

564 positibo berri
2.153 hildako EAEn
18.471 positibo guztira* UCIn EAEn

NAFARROAN

551 positibo berri
700 hildako
18.471 positibo guztira UCIn Nafarroan

*HERNANIN 631 (+20), ASTIGARRAGAN 173 (+3)

Chillida Lekuk doako sarrera eskaintzen die hernaniarrei itxialdiak iraun bitartean

Egoera berriak irauten duen bitartean herritarren ongizate fisiko eta emozionala sustatzea du helburu. Hernaniarrek museorako sarbide mugagabea izango dute urtebetez %50eko deskontuarekin.

HERNANI CHILLIDA LEKU

Chillida Lekura sarrera hernaniarrentzat doakoa izango da itxialdi berriak iraun bitartean, horrela adierazi dute museotik. «Chillida Lekun badakigu egoera delikatu bizi dugula, eta agian une honetan museoa bisitatzea ez dela lehentasunezko jarduera gure herritarrentzat. Hala ere, uste dugu osasun-krisiak naturarekin dugun harremana urgentziaz birplantearazten digula».

Eduardo Chillidak sortutako tokiak aire zabaleko lana mundu naturalarekin harreman zuzena izateak dakartzan onura fisiko eta psikiko guztiekin ikusteko aukera ematen du. Gune natural batean paseatzeak gure ongizatea areagotzen du,

estresa eta antsietatea murrizten ditu eta gure immunitate-sistema indartzen du. Chillida Leku, artea eta natura batzen dituen gunea, momentu honetan leku aproposa da deskonektatzeko eta Eduardo Chillidaren lanaz lasaitasun eta segurtasun osoaz gozatzeko.

Bizi dugun osasun krisiaren une honetan, Chillida Lekuk komunitatearen ongizate fisiko eta emozionala bultzatu nahi du eta datozen asteetan bisitan etorri nahi duten hernaniarrei museorako sarrera doan eskaini nahi die.

Gonbidapenak eskuragarri gaurtik aurrera

Gonbidapenak museoaren web orrian egongo dira eskuragarri gaurtik aurrera eta datozen bi



Chillida Leku doan bisitatu dezakete hernaniarrek.

astez luzatuko da ekimen hau, udalerrien artean mugimendua mugatuta dagoen bitartean.

Chillida Lekuk uneoro errespetatuko ditu indarrean dauden osasun neurriak, edukiera mugatuz, instalazioak zorrotz garbituz eta bisitarien segurtasuna bermatuz. Gonbidapenen kupoa ordu-tarteka mugatuta dago, edukiera-murrizketak betetzen direla bermatzeko.

Urteko abonuan deskontua Urte osoan gozatzeko lekua da

Chillida Leku. Hernaniarrei inguru seguru batean arteaz eta naturaz gozatzeko aukera ematen jarraitzeko, udalerrien konfinamenduaren ondoren ere, %50eko deskontua eskaintzen du urteko abonua erostetan. Emanaldi honekin, bisitaria Chillida Lekura joan ahal izango da museoko ordutegian, nahi adina aldiz, erosi eta hurrengo 365 egunetan. Gainera % 10eko deskontua izango du dendan egindako erosketetan, baita jarduera berezietan ere. **K**

Errigora ekimenaren saskiak dagoeneko eskatu daitezke azaroaren 12ra arte 'errigora.eus'-en

Saski beltza, saski berdea eta saski zuria daude. Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratzen da saskien balioaren %25a.

URUMEA AEK

Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen Errigora ekimenak abian jarri du jada udazkeneko kanpaina. Nafar hegoaldeko uzta euskerari puzka kanpaina azaroaren 12ra arte izango da. Iaz bezala, produktu bikainez osatutako 3 saski izango dira aukeran: saski beltza, berdea eta zuria, eta hauen ba-

lioaren %25 Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzara bideratuko da.

Saski beltzean orburuak, pikillo marmelada, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, teilak, tomate frijitua, mertxika almibarretan, oliba-olio birjina estra, kardua, mahats-zukua, botila ardoa eta piper-mamia eskuratu ahal izango dira, 55 euroren truke. Gainera, Korrika-

ren katilua ere jasoko da.

Saski berdean (ekologikoa), berriz, txitxirioak, ardo-ozpina, oliba-olio birjina estra, barazki-menestra, pasta, orburuak, pikillo piperrak, arroza, zainzuri zuriak, botila ardoa eta udare-zukua izango dira, 65 euroan. Horrez gain, Seaskaren egutegia ere eskuratuko da.

Azkenik, saski zurian (berzia) orburuak, pikillo piperrak, zainzuri zuriak, botila kriantza, txokolatezko zigarretak, patxaran-pastak, patxarana, oliba-olio birjina estra, ardo zuri apartsua eta arbendol-polbo-

roiak izango dira, D ereduaren haziez gain. 75 euroko balioa du saski honek.

Aurten, pandemiak eragindako nahas-mahasa dela eta, elkartasun-proposamen berezia egin da, eta saskiko 5 euro gehigarri emango zaizkie AEK-ri, Seaskari eta Sortzeni, Korrika, Herri Urrats eta Sortzenen jaia ez egiteak eragingo dien diru-galera arintzen laguntzeko.

Eskaerak www.errigora.eus webgunean egin daitezke eta saskiak azaroaren 27an (ostirala) jasoko dira Gudarien plazan, 12:00etatik 19:30era. **K**

Aste honetan, gaur, ez dago zinerik

HERNANI ZINEA

Biteriko zine emanaldian eskainiko diren pelikulak, asteburuan hasi eta astelenera arte ondorengoak dira; *Padre no hay más que uno* eta *Mi semana extraordinaria con Tess*. Aste honetan gaur ez da zinerik egongo baina bai bihar, etzi eta astelehenean. Orduei dagokionez kendu egin da 22:30etako emanaldia. Haurrentzako pelikula 16:30etan eskainiko da, bihar eta etzi. Helduentzako pelikula bihar eta etzi 19:30etan egongo da ikusgai eta astelehenean 16:30etan.

Antolakunde berria aurkeztuko da gaur

HERNANI BERTINTASUNA

Gaur, arratsaldeko 18:00etan, Emakumeon Antolakunde Sozialista aurkeztuko du Itaia taldeak, «zapalkuntzarik gabeko gizartearen eraikuntzaren bidean, emakume langileon askapena gorpuztea» helburu hartuta. Biterin izango da eta bertaratzeko deia luzatu dute antolatzaileek.

Karabana manifa, Hernanitik irtenda

HERNANI KARABANA

Karabana manifa bi antolatu dira bihar osasuna eta eskubi-deak aldarrikatzeko eta PCRekin amaitzeko besteak beste. Horieta bat Hernanitik irtengo da, Galarretako aparkalekutik, 09:00etan. Bi karabanak Zestoan elkartuko dira, Elgoibarren 13:30etan amaitzeko.

Erosketa bonoak bihar arte erabili daitezke

HERNANI BERRIAK

Bihar amaitzen da, Hernaniko Udala eta Berriaken erosketa bonoak erabiltzeko epea, aurrerago ezingo dira erabili.



Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura



Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telefonoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net



BAUTISTA BIURRARENA ETXEGOIEN

Atzieta 30 - Hernani
943 33 24 40



Babarrun janak sakramentuekin, postrea eta edaria barne

20€
Erreserba
24 ordu aurretik egin
Santa Barbara, 2. Hernani
Tel: 943 33 13 87

GAUR Egunsentiko behe-lainoen ostean, urdina gailenduko da zeruan, tarteka goi-lainoen zertzeladekin. Hego ikutuko haizeak giroa epeldu egingo du.
Min.13° / Max.20°

BIHAR Giro lasai eta atseginarekin hasiko da asteburua. Giro eguzkitsua gailenduko da, sareta iritsiko diren goi-laino finekin. Hegoaldeko haizea ibiliko da.
Min.14° / Max.22°



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gaez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Mendizale Astea astelehenean hasiko da eta bost egun iraungo ditu Biterin

Iñaki Zuzak eskainiko du lehendabizikoa eta bertan Armeniako natura eta kultur ondarea emango ditu ezagutzera, 19:30etan hasita.

HERNANI MENDIRIZ MENDI

Mendizale Astea datorren astelehenean antolatuko du Mendiriz Mendi elkarteak, Hernanin, astelehenean hasi eta ostiralera arte. Saio bana izango du arratsaldero eta horrela, hainbat abentura eta bestelako gai interesgarri ekarriko dituzte Biteriko aretorea, mendiarekin zerikusia duten arlo ezberdinetakoak.

Iñaki Zuzak eskainiko du aurreneko saioa, astelehenean, azaroaren 2an, 19:30etan hasita, Biterin. Eta Armeniako natura eta kultur ondarea emango ditu ezagutzera Zuzak, aurtengo Mendizale Asteari hasiera emateko. Izan ere, mendiarekin oso

lotuta dagoen herrialdea da.

Kaukaso mendikatearen hegoaldean dago Armenia, Europa eta Asiaren artean, eta muga egiten du Georgia, Azerbaijan, Iran eta Turkiarekin.

«Bertako mendi eta baso paisaia harrigarrietan, antzinako eliza eta monasterio ederrak daude», aurreratu du. Eraikin horietako asko, hain justu, Gizateriaren Ondare izendatu ditu Unescok.

Mendiko bizikletarekin abentura, Nepalen barrena Nepalera eramango ditu herri-tarrak, Mendizale Asteako bigarren proiektzioak. Izan ere, hango mendi inguruetan bizi-

kletarekin egindako abentura ekarriko du Raul Diazek, bideo emanaldi batekin. Arratsaldeko 19:30etan izango da hori ere.

Mendiko beste atal bati egingo diote lekua asteazkenean, Mendizale Astearen hirugarren egunean. Izan ere, Gipuzkoan eskalada jasagarria egiteari buruz hitz egitera etorriko dira Gipuzkoako Mendizale Federazioaren ordezkariak.

Angel Beldak eskainiko du osteguneko proiektzioa, azaroaren 5ekoa; baina oraindik ez dute aditzera eman, zeri buruz ariko den. Lehenengo lau saioak 19:30etan hasiko dira, Biterin.

Eta argazkilari onenei sariak, astea bukatzeko eta urteroko hitzordu batekin emango diote bukaera, aurtengo Mendizale Asteari. Ostiraleko hitzordua 18:00etan izango da, Biterin bertan. **K**

'LOO' haur antzerkia bi saiotan bihar eskainiko da eduki mugatuarekin

30 minutuko iraupenarekin lehenengo saioa 11:00etan hasiko da eta bigarren saioa 12:30etan.

HERNANI ANTZERKIA

Kultur programazioaren barruan, LOO antzerkia eskainiko da bihar larunbatean, Biterin, eta edukiera mugatua denez, bi saio izango ditu antzezlanak, 11:00etan eta 12:30etan. 2 eta 5

urte bitarteko haurrentzat dago zuzendua, eta beharrezkoa da umeak heldu batekin etortzea. 30 minutuko iraupena du.

Loo esaten zaio Indiako zonalde bateko haize indartsu, bero eta lehorrari. Elementu hori irudikatuz, Loo du izena

antzezlan honen protagonistak, eta bere lan gogorraren ikuspegi erakusten du ikuskizunak: basamortuko dunak bultzatzea eta gune hezeak, oihanak eta ozeanoak suntsitzea. Dokumentu poetikoa da. Eszenografia ikusgarria da, oholza gainean, hondarreen dagoen itsasontzian inguruan biltzen baitira ikusleak, espazioa aktoreekin batera partekatuz. **K**

Hernaniko bigarren Gazte Eguna bertan behera geratu da

«Tamalez, azken asteotan egoera larriki okertu da, eta ez dugu Gazte Eguna segurtasunez egiteko baliabiderik ikusten» dio Ernaik.

HERNANI ERNAI

Hernaniko Ernaik berriki adierazi du aurtengo Gazte Eguna bertan behera geratu dela osasun egoeraren ondorioz. «Tamalez, azken asteotan egoera larriki okertu da, eta ez dugu Gazte Eguna segurtasunez egiteko baliabiderik ikusten. Horrexegatik, 2020ko Gazte Eguna bertan behera uztea erabaki dugu»

Aurtengoa bigarren urtea

zen antolatuko zena eta behar nabarmenagoa ikusten zuten antolatzeke. «Pasa den urtean Hernaniko Ernaiko gazteok antolatu genuen Gazte Egunari jarraiki, 2020 honetan ere II. Gazte Eguna antolatzeari ekin genion. Aukera eta planteamendu asko mahai gainean jarri ondoren, lanari ekin genion, eta urria-azaroa honetan ospatu beharreko Gazte Eguna martxan jartzen hasi ginen. Covid-19 ak

eragindako ondorio sozial eta politikoak haundiak izanik, planteamendua aurrera eramatea inoiz baino zentzuzkoagoa iruditzen zitzaigun, salaketarako, formakuntzarako, kulturaz gozatzeko... espazio bat eskainiz».

«Arduraz jokatzeko unea da»
«Arduraz jokatzeko unea da, elkar zaintzeko eta alternatibak eraikiz krisi kapitalista honi borroka erantzuteko. Gazte antolakuntzaz lortuko dugu, krisia kapitalak ordain dezala!» aldarrikatzen dute Hernaniko Ernaiko kideek. **K**

Gau Beltza ospatzeko baliabideak, eskuragarri

Topaguneak jaia gehiago zabaldu nahi du eta horretarako 'www.gaubeltza.eus' orrian informazioa lortu daiteke.

URUMEA TOPAGUNEA

Topaguneak, aurtengoan eta datozen udazkenetan ere jaia Euskal Herri osoan, kalean ez ezik, talde txikietan eta etxeetan ere Gau Beltza ospatzeko baliabide berriak jarri ditu aukeran www.gaubeltza.eus webgunean: kala-

bazak jarri daitezke balkoietan eta kalabaza nola prestatu azaltzen da bertan. Gau Beltza zer den, nondik datorren, herrietan zer egiten duten deskribatzen duen dokumental laburra ere badago eskura bi adibide aipatzearen. Iaz bikoiztu egin zen Gau Beltza antolatzen duen herri kopurua eta aurten biderkatu egin nahi dira iaz piztutako kalabazak. Egoera aldrebes honetara moldatuta ospatu daiteke Gau Beltza; herri, auzo, familia, lagun talde, bizilagunen artean piztu daiteke Arimen gaua eta iluntasuna bizi. **K**

Ostiraleroko zita mantentzen da gaur

HERNANI PRESO ETA IHESLARIAK

Hernaniko preso senideek kontzentrazioa egitea erabaki dute gaur, hileroko azken ostiralean bezala, 20:00etan Gudarien plazan. «Jabetzen gara COVID-19 pandemia dela eta arduraz jokatu behar dugula eta honegatik agertzen diren guztiei distantzia mantentzea eta musukoak eramatea eskatzen dugu. Kontzentrazioa mantentze erabakia behartua hartzen dugu errazago baita ezer ere ez egitea, baina espetxetan pairatzen hari diren egoera oso zaila da eta egoera hau salatu beharrean gaude».

Hilerrian etzi pilaketarik ez sortzeko neurriak hartuko ditu Udalak

GOIZUETA AZAROAK 1

Goizuetako hilerrian, Santu Guztien egunean, azaroak leian, pilaketarik ez sortzeko neurriak hartuko ditu Udalak. Honela, hilerriko prestaketa lanak aurreko egunetan egitea gomendatzen da. Gehienez lau laguneko taldeetan sartu beharko da. Gehienez 40 lagun egon daitezke aldi berean. Maskara erabili beharko da, sarrera eta irteera ate desberdinetatik egingo da eta norabide bakarrean ibili beharko da, gezien norabidea segituz.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† GREGORI AGUIRRE BERASATEGUI
(Juan Jose Lasaren alarguna)
Atzo hil zen Hernanin, 87 urte zituela,
Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Ahizpa: Maria (†); ezkon ahizpa, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko urriaren 30ean

OHARRA: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.

IRAGARKI MERKEAK

Esperientziadun neska euskaldunak goizetan lan egingo luke etxeak garbitzen, umeak edo beste edozein lan. **Deitu: 637 30 28 52**
Errioguardan eramateko menua. GAUR: Azelga penkak rebozatuak eta barazkiak saltsan + Pikilloak, bakailaoz beteak tomate saltsarekin + Almendra tarta. BIHAR: Espageti integralak entsaladako tomate eta gaztarekin gratinatua + Eskalopea patata eta txanpinoekin + Gazta tarta. **10,5 €.**
Zubialde tabernako eguneko menua asteartetik ostiralera 12:30etatik 15:30etara. **10,90€ Inigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**